

**EUSKALTZAINDIAREN
BARNE-HISTORIA
(VII)**

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

*Xabier Kintana,
idazkaria*

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horhan-hemenka gutun argitaragabe, artikulu eta dokumentu sakabanatueta barreriatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia dei genezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkerak okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litza-teke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE LAFITTEN GUTUNDEGIA

Bigarren azaoaren aurkezpena

J.A. Irigaray

P. Andiazabal

P. Xarritton

P. Gartzia (ohar egilea)

Piarres Lafitten gutundegiko lehen azaoan sartu genituen P. Lafittek berak Fermin Irigarai «Larrekori» eta bereziki haren seme Aingeru Irigarayi bidali zizkien eta guhonek eskuratu ditugun gutun bakanetarik zenbait, hots, bospasei bakarrik, eta gero jarraian argitaratzen genituen Aingeru Irigarayek Piarres Lafitteri, 1933tik 1936eko gerla arte, bidali zizkion hamabi gutunak.

Oraiko azao honetan aldiz aurkezten ditugu 1947tik lekora eta 1978arte bakotxa bere datarekin bildu 41 gutunak eta bospasei datarik gabekoak (42-47) Azkenik datoz Irigaraytarrei 1935ean E. Zubiry «Manezandi» adiskideak bidali gutuna (48), beste hiru mezu: P. Lafitteri «Larreko» beraren bi gutun (49 eta 50) eta Luis Mari Irigaray semeak familiaren adiskide apezari (P. Oyamburu jaunaren bitartez) bidaltzen dion bere aitaren hil berria (51 bai eta datarik gabeko «Ganistebe» delakoaren gutun bakarra (52).

A. IRIGARAY – P. LAFITTE
(1947-1964)

S.S. 25-VII-47

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Nere jaun eta adiskide. Igorri nitzun nere Schuchardt'en (1) itzulpenaren exemplaire bat, *Primitiae linguae vasconum* (2). Eztakit eskuratu duzunez. Otoi, elarazi zadazu, bitarteko unen medioz, bertze bat igortzeko. Zuen lanak eta aurrerapenak jarraitzen tugu bozkario andirekin; ene zorionak. Emen deus guti egiten ahal dugu. Ikusten dut iztegi frantses-eskuara baten egiteko-tan zaudela; gauza premiatsua... Eni ere Editorial batek mintzatu dit gauza iduritsuaren egiteko; ez dut astirik ortako, bañan oldozten dut okasioa litakela akort juateko iztegiaren zati batean; español-eskuara iztegiaren faltako dire itz ainitz, orko eskuaran direnak; iduritzen zait ez duela balio berrien moldatzen astea, orai geyegi ikusten dugun bezala!, dauzkagularik zuen euskararen. Orregatik, ikusi nai nuke zure iztegi ori, emen asi baño lehen beste baten egiten, español-eskuara. Etzaizu iduri iztegiaren sartu bear lirakela franko itz teknikoak, arrontak (Arithmetika, geographia, apendicitis), ala ala, itzulikatu gabe euskara garbira? Beste izkuntzetan egiten den bezala, eta euskara mintzatzean erraiten diren bezala?

Zuen Revue (3) ederra ikusi dut, eta ainbertze berri ikasi, zure lan ederraren medioz. Baita zure iztegi ttipia. Langile andia zaitugu!

Aspaldiko egunetaz oroitzen gara. Agian noizpait, elkar ikusi ahalko dugu eta bitartean onarzkizu otoi, ene betiko sendimendurik oberenak.

A. Irigaray

(1) Hugo Schuchardt (1842-1927)

(2) Schuchardt, Hugo: *Primitiae Linguae Vasconum*; versión española con notas y comentarios de la original alemana por A. Yrigaray; con una carta-prólogo «De las dificultades de traducir al castellano algunos trabajos vascológicos de Hugo Schuchardt» por Julio de Urquijo, Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad; Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 1947.

(3) *Eusko-Jakintza: revue des études basques = revista de estudios vascos*, Baiona: Gernika Bazkuna, 1947-1957.

Donostian 9-VI-48 chez M. Elso

Piarres Lafitte jaun agurgarriari

Uztaritzen

Neure adiskide jauna. Bozik irakurri dut zuk igorri gutuna eta atsegin artu zuk eman berriekin. Baita zorionak igortzen dizkizut berriz ere, *Herrian* egin duzun lan balios eta jarraikiarengatik, bereziki Bazko egunean eginikako irakurgaiaz. Jauregiberry (4) jaun dotoreari, othoi, pasa azkiozu ene goraintziak, laket zaitzunean, bere lan ezinago fiñ eta zorrotzengatik; beti mamira, txukunki, itz alferrik gabe. Lastima Ziberutik berri eskas; elitzake on ayen faltan zenbeit kanta zahar ezartzea? Ezen Euskalherriko goren mallakoak direla shuberotar kantoreak ez da dudarik. Zergatik ematen da Shuberoa Eskalherri apart bethi, berrien sailan?

Jakintzan (5) ere atsegin handirekin irakurri dut zure yardespena; zorigaitzez aldizcari orretan ashala eskuaraz eta mamia erdaraz. Baita arrazoi handia duzu Etxahun maitearen alderaco eleetan; liburu ezin ederrago egin duzue barkoshtar koblariaz. RIEB-ean eman nuen nik Chamisso-ren (6) poesiaren itzulpena, oct. 1933, naiz eztagon arras ontsa. Lacombe-ren Liburutegian ezduzueia billatuko aren biographia eta berzerik? Eta Beñat Mardo famatuiaren koblarik eztea ageri? Salaberry-k (7) ematen duenaz kampo? Jarraik ola aitzina ere; emen ezin dugu alakorik; tinkiegi atxikitzetik eskuara ta politika kalte bertzerik ez dugu bildu emen; ezginake gaizki oraico politica aldecoak eskualzale balire.

Ykuska (8) pollita nai badute edatu, eta behar ere, on litzateke *x*-aren ordez *sh* usatzea, berek N° 4-5an lankideei erraiten dioten bezala « *en écrivaint les mots le plus exactement possible...* » ezen n° 6-7tean eztagigu shushen *ershia* edo *ertsia* nahi duten adiarazi (*erxia* = intestin).

Azken *Jakintzan* Rodney Gallop-ek dio pastoralak itzaltzera dohozila; elitate on, frogatuko, pastoral laburtu bat ematea (folkloreleriak soinecoak urratuko dituzte!) yasangarriago egiteco oraikoeri?

(4) Jean Jauregiberri (1880-1952).

(5) Ikus 3. oharra.

(6) Adelbert von Chamisso (1781-1838).

(7) Jean Dominique Julien Salaberri (1837-1899?).

(8) *Ikuska*: (*giza-ikaskuntza*), Sara: Instituto Vasco de Investigaciones (Sección de Antropologia) = Institut Basque de Recherches (Section d'Anthropologie), 1946-1996.

Baehr-en (9) lan baliosa ez ote du frantsesez norbaitek berriz emanen al-dizcarian? Eskuco iztegi español-eskuara bat beharrezcoa dugu; zuek agian alaco franses-eskuara bat egitecotan baldin ba zagozte, iduritzen zait on lizatekela elgar juaitea, hitz saila handian; ez alafede eskuara batera heltzeco ametsarekin, bainan bai bertze dialect berri bat ez sor-arazteco; zembeit hitz, *de la vie urbaine, de la culture élémentaire, scientifique, erderismes* beharco dira ala-ala gure iztegian onhart; emen dohakizu zenbeit etsemplu.

Ortographiaz diozunaikin akort naiz; bainan zuen *etche* emateco emen ezdute segituco *etshe*; jendeak naiago du *eche* edo *etxe*; nik uste azkena autuena.

Idazteco maneran eracusten duzun zuhurtzia nai ta naiezcoa da; emen egin dira ainbertze bidegabekeri, ezen orai icusten dugu, hainitz jende eskaldun garbiek uzten dutela bazterrerat euskarazco dotrina edo catishima eta Elizaraco liburua, erdarazcoak usatuz, erraiten dutela: «*eztugu comprenitzen bature euskera zerratu ori*». Behaztopa arri handiena neologismoak eta graphia hertsu ori; gure lagun batzuek ezdute au ikusi nai, naiz iguzkia bezain argi den. Orai erran dezakegu emen euskaldunek erdara bakarrik irakurtzen dutela salbu bakar, agitz bakar batzuk.

Esk.	Esp.	Fr.
Kantidadea	Cantidad	Quantité
Kalitatea	Calidad	Qualité
Kualitatea	Cualidad	
Abstrakt	Abstracto	
Konkret	Concreto	
Positiv	Positivo	
Negativ	Negativo	
Direct	Directo	
Method	Método	
Hipotesis	Hipótesis	
Geographia	Geografía	
Golko	Golfo	
Cap	Cabo	
	Estrecho	
	Habitante	
Romanik	Románico	
Gothik	Gótico	
Apendizitis	Apendicitis	
Aorta	Aorta	
Colon	Colon	

(9) Gerhard Bähr (1900-1945).

Esp.	Esk.
Astronomía	Astronomia
Atmósfera	Atmosfera
Atómico	Atomik
Aumentar	
Aritmética	Arithmetika
Sumar	
Restar	Ekendu ?
Interés simple	Interes...
Banco	Bank
Letra	Letra
Cheque	Txeke
Gramática	Gramatika
Verbo	Verbo
Adjetivo	Adjetivo
Conjugar	Conjugatu
Declinar	Declinatu
Parlamento	Parlamento
Diputado	Ahaldun
Senador	Senatore
Elecciones	Autesmenak
Demagogo	Demagogo
Soldado	Soldadoa
Batalla	
Torpedo	
Bomba	
Aeroplano	
Sargento	
Bandera	
Regimiento	
Capitán	Kapitain
Caballería	Zalduneri
Butaca	Artilleri
Armario	

Aitaren partetik Agur handi batekin. Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

20-XII-48

M. Pierre Lafitte

Ustaritz B.P.

Nere jaun adiskidea. Zorretan nago zurekin; erran nahi dut escuratu nuela zure gutun mamitsua. Segitzen dut irakurtzen zure astecari ederra; Eskalherri guzian ezta lan onuracorrakorik, euscaldungoari buruz, zuek egiten duzuen baño.

Banuke zenbeit gauza or argitaratzeco, ala nola ipuinak, *Manezaundi* (10) batenak; behar bada ezagutuco dituzu; bañan uste dut elirazkela batere gaizki; nik ere nahi izanen nuke zerbait bidali, ala nola Miarriz-co biltzarrera nahi izan nuen; baño badakizu zer erreshtasunak ditugun... Gogotik jakin dut biltzar orren arrakasta; badakikezu gogoan or nintzala, nahiz ishil; ar zazue nere zoriona. Astecaria, multzoca irakurtzen ditugu, ez beti tenorez; ori da contra handia. Jauregiberry-ren *Une cure salubre* ontsa, zorrotz eta zuzen; *Herria* irakurazteco conseilu biribilla; egia handia, ala ere batzutan oraino politica berri geyegi ez ote duen ekhartzen... gureak! *Realis. de la S. Int. Et. Bas.* biziki interesatea; obe da zuek egiten duzuen, escuarari lagundu, ezen ez gure lehenagocoo bezala, indarra eta sosa barreiatu, Industrie, Sciences et Lettres (pas basques du tout) eta euscarari papur batzu; teatro euscara bai, baño operak ez ainbeste. Begi ta belarri nago Escolaco liburu bati (aski dugu bat edo bida) buruz dituzuen asmoetara, zeren nik baitut lan batzu eginak ere. Konbeni litzake liburuan usatu behar zombeit itzetan (Historia, Arithmetika, cap, détroit, île, cordillère, multiplie, adjectif...) akort egoitea, bereziki erdaraticako itztegian onartu behar diren hitzetan. Etzaizue norbait minduco Pays basque français azken itza ishiltzen dutelakotz? *Jakintsunen Astea* biziki articulu mamitsua. *Le Chêne de la Liberté* arras ona. Edouard Benes egin duenak badaki politica ontsa barnatzen eta minberena ukitu du tcheko abertzale sutsuaren afer hitsan. *Eskoletan eskuara* orretan diona egia othe? Aski ginduke ordu batzu astean, cantak, jostetak eta ipuinak irakasteco; geroshago geyago; baño errientak dire beharrago liburuak baño; errienta euskal-dun edo -zaleeri ez ote *Eskualzale biltzarrecoen* sariak ere? Sarien berri zatia oso ederra, eracusten bai-digu escuara biziaren gora beera; baño Zerbitzari (11) maiteari othoi, le-roaldi tinko luzeegiak egiten dituela; punto eta aparte geishago, obe. Baigo-

(10) Enrike Zubiri *Manezaundi* (1868-1943).

(11) Jean Elizalde *Zerbitzari* (1883-1961).

rriko eskualdea idazten duenak badaki sehurki *Nabarra* erderazco izena dela; escuaraz beti *Nafarroa* usatu dugu, Axularretik asi ta.

Baehren lanaren itzulpen bat igorricco dautzut, nahi bauzu ez ta nerea, eta eztut astirik mihatzecco ontsa dagon, eta uste dut konbeni litzakela orrashtaldi bat; zuk erran.

Zure astecariaikin goazin berriz. Arras ongi *Gazte* zonbaiten gogoa deritzaion zatia; nahiz iduri duen urrunshco direla oraino abiadura oiek; on da ala ere gazteek amets pisca bat egin dezaten. Semperecco norbaitek idatzi zuen *tx-x-graphia* orrekin; onartzen duzueya *x-sh*-en orde? Nik ez dut goganbeharririk batere, bañan uste nuen bertzalde nahico zela or gaindi; gu ere emen araber jarraitzecco, jakin nahi.

Biziki mamitsua Donibaneco aldizcaria; zure bi bibliogr. irakurri tut; Leon-en Ebangelioa (12) eztut oraino ikertu; nik maite dut Haranederrena (Harriet) (13) nahiz zaharshco, badu antxinecco usain gozoo; itzulpen berri geyago egin gabe ez ote zen egoki izanen euskaldun guzietara edatzea Ebanjelio itzulpen bat bacarra (neretaco nafar-lapurterra)? Bederen liburu bat eta Liburu saindua? Uste dut euscara baten bidera, bidea eginen zela. Lerchundi-ren Kanticak (14) ere arazo garrantziduna deritzait euscal batasun orri buruz. Kantika orietan autatu behar lirazke zonbeit, arruntenak, bizienak, alaienak emengo aldietaco Elizetan sararaztecco; kantika alaiak diot, eta barkatu ene ausardia, ezen iduri zait Elizan oren kontsolagarriak behar ditugula aldi hits oketan, eta ez geyegi cantika bildurgarriak eta illunegiak. Ala ere badakusat zure bibliographian... *La grégorianite a sévi... Le peuple aura ses préférences pour le cantique court, de rythme animé... n'abusons pas de la gravité...* arras zuzenki ikusia da ori.

Barka gaizki erranak, ezen emendik ezdirala shushenki icusten orco gauzak goganbehartzen naiz.

Eguberri onak eta Urte berri on bihotz bihotzetik! Agindu bethi zure adiskide eta zerbitzari ttipienari.

A. Irigaray

(12) *Jesu-kristo gure jaunaren Ebanjelio saindua*, Léon Léon aphezak eskuararat itzulia, Ustaritz, 1947.

(13) *Jesu-Christo gure iaunaren testament berria*, lehenago I. N. Haraneder done Ioane lohitsuco iaun aphez batec escuararat itzulia; orai, artha bereci batequin, garbiquiago, lehembicico aldicoçat aguer-aracia, laphurtar bi iaun aphecec, Baionan: Lasserre, 1855. Bi apaizak dira: Maurice Harriet (1814-1904) eta Pierre-Nérée Dassance (1801-1858).

(14) Lertxundi, Gabriel: *Kantikak = Cantiques basques: anciens et modernes*, Urt: Abbaye N.-D. de Belloc, 1948.

Donostian 25-V-49
Esnaola, 11-1°

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Neure jaun eta adiskide ona. Emengo Akademia edo Euskaltzaindiakoek nahi ginuke zerbait egin, abia, pitz. Frantziako eskualdunek ere batzartu behar lirazke gurekin: utziko? Emen uste dute baietz.

Nola Elizalde (15) gure adiskide jauna da orko bakarra, nik eskatu dut 4 toki merezi dutela bederen Iparraldekoek; eta oyetan lehena zu, jauna; baietz ere erran didate.

Gavel (16) jaunarekin (erabakitzen badute izen au autatzea nik eskatu bezala) 4 dire, A. Lhande (17) gai baldin badago. Orai zuk erran ontzat artzen duzun, eta berdin besteek; emengo batzarretara etortzeko. Beste izen bat edo bi erradazu othoi, egokiak euskal idazleen artekoak, gerta bai liteke, beste toki geyago bat ere bethetzea Iparraldekoekin; au dena oraiño belarrira erratea...

Nahi litake or argitaraztea orri shume bat bizi erakusgarri, eta erabakiak jakinarazteko. Sosak gutti, shautzeak aunitz... trabak ez guti.

Zuen berrien aiduru gelditzen da emen zure adiskide eta zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

Zuen astecari maitea etzaigu eldu bacan baizik.

(15) Ikus 11. oharra.

(16) Henri Gavel (1880-1959).

(17) Pierre Lhande (*Aita Lhande*) (1877-1957).

4-IV-50
Esnaola, 11

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Nere jaun adiskidea. Gan den biltzarrean solasa egiteco zurekin nuen gutizia ezin bete. Franko interesantea zen, ezen Krutwig-ek (18) grafiari buruz eman zuen zirikaldi bat, eta tenore da zerbait batetara erabaki dezagun, obereña ta lazoen, zabalena edo lasaiena; ez ertsia, ez geyegi tinkatua. Zerbitzari ari eman nion zuretaco astecarientzat kondu bat Zubiri-rena. Eta izen errescada bat, zuk iritzia eman dezadazun; edo zeintzu onhart, edo zenbait beste izen eratzeki, ez izendegi osoa, Aranak (19) bezala, baizik usatuenak. Kalendrerera, eta berdin izkiribatzaile eta poetentzako, on litzake corpus bat izan dezagun, geren artean; ezen publicatzea Akademian etzuten denek onhartuco orai.

Othoi, segi bidaltzen *Herria* eta sei ilabeteraco, eta 2 numero; saria igorrico zuzen Bayonarar, edo zuri? Zembat da?

Bidali nitzun Kalendrerera Aranzazucoa (20); costa da 36 libera plus orco Postacoa; nik zor nitzun 100 libera nere aldetik.

Euskaltzaindiak egin behar duen leenbizico gauza iztegi ttipi bat erdararuscara, *de mots sur la vie urbaine, et techniques (enseignement élémentaire)*. Agindu zure adiskideari.

A. Irigaray

Nahi ginuke jakin zer egiten zoazten Escolan eskuaraikin.

(18) Federiko Krutwig (1921-1998).

(19) Arana Goiri, Sabino: *Deun-ixendegi euzkotarra edo Deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezartzen diran jayetako ixenan euskerazko ikurpenak*, Arana-Goiri'tar Sabin'ak asmaubak egutegi bizkaitarra'rentzat; Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxaurre bategaz = *Santoral vasco o sea Lista de nombres euzkerizados de los santos y traducción de los nombres propios*, adaptados por Sabino Arana Goiri para egutegi bizkaitarra; con un prólogo de Luis de Eleizalde, Bilbao: Euzko Alderdi Jeltzalia'ren Bizkai-Batzar Ordia, 1910.

(20) *Arantzazuco Andre Mariaren egutegia*, Aita Prantziskotarrak egiña, Arantzazu'n: Aita Prantziskotarren Komentuan, 1947.

Esnaola, 11
Sn Sn 12-VIII-53

M. Pierre Lafitte
Petit Séminaire de
Ustaritz B.P.
(Francia)

Cher Monsieur et ami,

Hunen 15ean eta 16ean izanen dut zuri agurtzeko okasionea; ezen joan gogo dut hiri hortara, trabarik ezpada bitartean: agian, xoko bat kausi nezake kokatzeko. Laster artio beraz, Jainkoak nahi badu.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

* * *

S. Sebastian 3-X-53

Piarres Lafitte jaunari,

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Azken batzarrean etzuten ukan arrakasta hanbatekoa nere proposizioneek, bainan halarik ere uste dut beharrezkoak direala. Iztegia bidali behar dirazue, hortarako ere, 1000 fr. horiek igorriko ditut zuk nahi toki-
kirat. Charritton jaunarekin, gelditu bezala, mintzatu behar litzake, jakin dezan gure antologia gaia saritarat atera gogo dugula, hala ta hala gure hiztegi-
nai horrek ez dut uste itzal fitsik egiten ahal duenik zureari; ezen hasi esp. euskara litake, eta Gilsou jaunak zer dio?

Zuk utzi bersoak gordetzen ditut; etziren nik nahi nituenak, ezautzen nituen...

Amodio bersoak aipatzen nitzun.

Egon ontsa eta onartzkizu ene agurrik beroenak.

A. Irigaray

12-IV-54

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Uste dugu eldu den batzarreko etorriko zaretela hortik..., mintzatzea komeni da ta; eta nik igorri nauzkitzun xehetasunak (ampliation des renseignements) frantsesera itzuliko zinituelakoan gaude; ezen hobe litzake xehetasun eske hortik norbait balego, zuengana jotzea guregana baiño; errezagoa egiteagatik.

Axularren *Gero* (21) ari dira, nik ere zerbeit laguntzen diet, imprimatu nahiean; 1^{ko} edizioa den bezala, oraiko graphian emana: *rr* doble eta *ll* dobleaikin; eta *h* letrak errespetatuz, ez denak..., ezen hemengoentzat zuzendua baitago; eta hemen traba handia da letra hori; hala erabaki dugu, konsonante-kin dauden *h*-ak ekentzea eta vocal-en artekoak konserbatzea; bide bitxia da, bainan, zerbait erregela hartu behar, *h*-ak gutxitzeko; horrerri buruz ere nahi ginuke mintzatu, eta erakuts zuri zenbeit orrialde; lana abantzu finitua dago.

Orai mandatu bat: nere adiskide batek nahi luke erdarako, bi hilabete edo..., horko apezgai serio bat, J. haren seme batekin ibiltzeko eta frantsesa erakasteko bere etxean idukiz eta..., posible dea? Uste dut Donibanen egoten dela jaun hori udan.

Ikusi dugu Euskal Ikaskuntzetako batzarraren deia gustagarria biziki, bainan... hunara etorri beharrak, badakizu...

Etortzen bazara oroit zaite, otoi, Etchepare Jean-en irakurgaiaz. Zure zurea.

A. Irigaray

Ene agurrik oberenak Dassance jaunarentzat.

(21) Axular, Pedro: *Gero: bi partetan partitua eta berezia*, Axular Sara'ko erretorak bildua; Euskaltzaindia'ren ardurapean, 4. argitara-aldia Euskaltzaindiko Lekuona apaizak prestatua eta aintzin-solastua; I. Eraskuna Angel Irigaray'k; II. Eraskuna L. Mitxelena'k, Zarautz: Itxaropena, 1954.

S. Sebastian 17-VIII-55

M. Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Otoi, erradazu *Pièces charivariques* aipatu haiek eskuratzen ahal dituzun S' Germain edo dena delako tokitik. Ezen, emen, Seminario de Urquijo-koek nahi ginuke baliatu okasione hori, gastuak pagatuz, eta ukan ahal izan denbora labur batean, hemen (zuk utzi ta, alegia) kopia bat edo egiteko balio baluke. Zure liburu aberatsa, Etchepare, itzuliko dautzut elgar ikusten dugunean, uste dut gelditu ginela Bayonan azken astegunean, Musée Basque, gure urrengo batzarrerako? Zer tenorez? Etzen posible bisitatzea M. Gavel? Merezi luke jaun hunek.

Noiz da *Matalas* Pastorala paratzen? Hau interesatzen zait aunitz, eta eskertuko nitzuke hitz bat, tenorez; *Herria* irakurtuz, behar bada berantegi.

Baduzu, edo dakizu non ditaken, *Etchamendy-Boryel Luçaidecoac eman khantiak carlisten gainian*, Imp. V^e Lespès, 8^o, 1876? Eskertuko nitzuke argi izpiño bat.

Egon ontsa eta agindu zure adiskideari.

A. Irigaray

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Jaun eta adiskidea. Charivari direlako horietarik omen dira S' Germain en Lay-eko Liburutegi batean... Nai nuke xehetasunak, non diren eta abar, ezen gure kide Lojendio (22) jauna doa Parisa eta nai luke ikuskatu eta agian Bayonako Liburutegiara ekararazteko urratsak egin.

Otoi, eskatzen ditzut ahal bezain laster itz bat bakarra, zuzenbide horrekin, aste bat baiño lehenago ahal baduzu.

Baduzuia *Etchemendy-Boryel Luçaidecoac eman khantiak carlisten gainian*, 1876, Imp. V^e Lespès, Bayona? Nahi nuke ikuskatu, eta zuk horren berri zerbeit badukezu. Egia ote da gure adiskide Tournier-ek itsuski galdu duela iztegiarekin (23)? Pena dut handizki.

Eskerrak aitzinetik eta barka ausardia. Zure

A. Irigaray

(22) Jose Maria Lojendio (1910-1979).

(23) Tournier, André eta Lafitte, Pierre: *Lexique français-basque*, Bayonne: Herria, 1953.

10-X-55

Piarres Lafitte jaun adiskidea. Mil esker zure argitasunengatik. Bai ere zuk igorri Canico-rengatik (24); ez kezkatu, begiratuko dut ontsa, eta nai baduzu, ez dautzut igorriko Postaz, eskura emanen dautzut, elkar ikusten dugularik; zuk auta.

Bibliothèque Nationale-an daudezinek ez duteia beste señaierik, n.i.~ berterik? Edo *Basque* edo halako zerbait? Behartuak gaude ikuskatzera obra horiek, ezen gutiegi ezagunak dire; eta jakingarrienak marratu, eta berdin beste Pastoral-ekin; zertan dago zure *Petite histoire littéraire*? Horretan aipa bear litazke. Badut ustia izendatzen dituzun guztiak euskaraz dauden; edo badeia euskara-erdara nahasteka direnak?

Zenbat koste litake Canico-ren kopiazea? Eta Parisetik ekarri horiena? Erranen didazu, Musée Basque-k edo ordaintzen ahal duen zerbeit; ezen Seminario Urquijo-k uste dut zerbait eman lezakela ere kopia batengatik; kopia, makinaz eta erratik gabe, erran nahi dut original-en errata ber-berekin. Uste duzuia zure adiskide horren bitartez, denen kopiak atera dezazkegula? Merkeago balitz, mikrofilma, bainan izigarri luze litake. Bordelekoak eskuratze-ko, Lafon (25) jaunak lagunt dezagukeia? Zure berrien aiduru gelditzen da zerbitzari ttipi hau.

A. Irigaray

(24) *Canico et Belchitine : farce charivarique*, traduite pour la première fois du basque en français d'après le manuscrit unique de la Bibliothèque de Bordeaux et accompagnée d'une notice sur le théâtre basque et d'un commentaire par G. Hérelle, Paris: H. Daragon, 1908.

(25) René Lafon (1899-1974).

8-VIII-56

Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Bear bada errain duzu ahantzi zaitudala, obeki errateko ahantzi dutala zure Canico izkiribua, ezta batere ala, bada. Aspaldi du kopiarazi nuela, eta ementxetik, ene gela ganberatik ezta igitu zure papera, baina beldur nintzen Postaz igortzea: xoxokeria? Baditake, baina eskuara gauzeekin beti erabe. Alabainan geiago gabe, igortzen dautzut Postaz, zuk egin zautazun bezalaxe. Zertako ez kopiarazi Parisen zure eskolier ohi horrerik? Gatuak erdizka eginen gintuzke, eta hala idukiko ginuen dokument gisa, Charivari horietarik bizpairur bederik. Badakit, Labayen-ek (26) erran ta, prestatzen duzuela Saran Axularren omenez zerbait; uste dut gomitatuko ditutzuela Ur-dazubikoak; eia hola pizten diren Nafarro aldean ere zerbeit egiteko gure maisu zaarrari. *Eganen* mintzatu bear gara *Herriaz*, gero ta sakonago eldu da... salbu gipuzkoar batzuen erdipurdiko eskuara...

Zure

A. Irigaray

(26) Antonio Maria Labaien (1898-1994).

29-IV-57

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene yaun adiskidea. Eskertuko nitzuke Boryel-en (27) bersoekin bidal bazenidazun juduen euskar kantika horien kopia, edo bestela nik hemen kopiatzeko, eta itzulikatzeke zuri.

Nahi nuke aurkitu *Réveil basque*, Pau, numero bat edo beste, edo *Almanak* berria, Bayonan, 1879-1882 (1885 Ortezen), nik Eskualdunaren almanakak baditut trukean emateko. Berdin nai nuke jakin badugunez berri Los Angeles-en agertu astekari hortaz, *Eskual herria* (28) Ezpeletako Goytino batek argitara emana.

Othoizlari (29) aldizkarian ikusten dut euskal Bibleaz diona, Duvoisinena (30) gelditu ote da gibelatua, zaarkitua, ikastaro berrien arauz? Harritu naiz ikustean beste berri bat behar ginukela.

Baionako rue du Pilori, hor nunbait, ezagutzen duguia liburu xaharrak aurki ditazken zokoan bat?

Barka otoi ainbeste galde, eta eskerrak aitzinetik. Zure adiskide eta zerbizaria.

A. Irigaray

(27) Joan Etxamendi Larralde (*Bordel* edo *Boryel*) (1792-1879).

(28) *California-ko Eskual Herria: berriketari eskualduna aguertzen dena larumbate guzietz*, Los Angeles, J. P. Goytino, 1893-1898.

(29) *Othoizlari: Ama Belokekoak urrungo othoizlari eta adichideri*, Urt: Abbaye N.D. de Belloc, 1954-1988.

(30) *Bible edo Testament Zahar eta Berria*, Duvoisin kapitainak latinezko bulgatatik lehembiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia; Luis-Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana, Londresen: Impensis Ludovici Luciani Bonaparte, 1859-1865.

C/ Esnaola, 11
Donostia 22-VII-57

Piarres Lafitte yaunari,

Ene jaun adiskidea. Badakit zure auzi faltsua garbitzen ari dela, obe hala, ezen uste dugu zerbait geiago gorde duela kolkoan arrabots horrek.

Hemen doazkizu lerro horiek, uste baduzu on diren *Herriarako*. Behar bada ez duzue gustoko izanen hemengo aldeko hainbat izkribu, ezen gero eta geiago dakusagu.

Ene seme Xabierrek, 22 urte, nai luke Uztaritzeko curso horietara joan, erdiesten badu hemen eskeintzen duten beca horietarik bat, frantses ikasteagatik nai dut joan dadin *Franziarat...*, baiñan ez dugu halako komenienziarik (trukean... edo) izan oraiño; zuk akaso jakinen duzu zerbait... Uztaritzeko hori ezpadu erdiesten.

Euskalerriko ipuinak direlako hori (31) nik moldatua da: moldetik prest dago. Censura baimena bakarrik eskas.

Nafarroatik sartu ditut 12 kontu, Baztangoak, Manezaundirenak eta besteak, berriz, geienak Barandiran-en Folklore-tikakoak (32), fonetismoak boro-bilduz, aatik.

Nahi nuke jakin Uztaritzeko Curso-en programa bat.

Ikus artio. Zure adiskide.

A. Irigaray

(31) *Euskalerriko ipuiñak* = *Cuentos populares vascos*, con su versión castellana seleccionados, revisados y anotados por A. Irigaray de la Academia de la Lengua Vasca, Zarautz: Itxaropena, 1957.

(32) Bi argitalpen dira: *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, Vitoria: Eusko-Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1921- , eta *Eusko folklore : materiales y cuestionarios*, Vitoria: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos, 1921.

6-VIII-57

Adiskide maitea,

Milesker zure gutunaz. Hor dago ene semea dortoir-ean, eta bozik uste dut, ezen geiagoko berririk ez dut. Tarrapataka ibili ginen eta gau hartan itzuli, ez astirik zu agurtzeko! Ene artikulo xumean lerro batzu eskas ziren eta Lafittek nai balu, hor doakizue orraztapena.

Bide batez erakuts zaiozu, otoi, kontu hor: Zubiri luzaidar zenarena da, ez dut segurtasunik emanen ez dela emengo paperen batean agertu (duela 30 urte), baina iduri zait kontu biziki ontsa moldatuak direla. Nai baduzue *Herrria*-n edo agertu, badut yaun honenak multzo pollita, batere edo guti ezagunak, ene eskutan hil zenetik.

Ene aita Auritzekoa zen, eta ikasi zuen eskuara gizona zelarik, bear bada orduko belarria eskualduna izanen zuen.

Pouvreau (33) eta Materre (34) joan diren mendetan ederki jabetu ziren eskuaraz, baiñan geienak kalte aundia egiten dute, bereizten ezta kitelakotz hitzak. Eskoletako aurren eskuara etsaminak beharko dituzue geiagotu? Aldi geiagotu eginez, edo errezago... ezin duzue baliatu euskararen alde duzuen Eskola Lege baliosa?

Hor elgar ikusten badugu, plazer nuke hortaz mintzatzea. Zure zerbitzari eta adiskide.

A. Irigaray

(33) Silvain Pouvreau (XVII. mendea).

(34) Esteve Materre (XVII. mendea).

18-IX-57

Piarres Lafitte jaunari,

Ene adiskide jauna. Hemen dituzu zuk utzi koblak eta mile esker. Beste milesker emanen nizuke uzten bazenizkida apezten zirika Boryel-ek egin ber-soak.

Otoi, ikusten baduzu Villalonga jauna, errakozu, Comite-koa baldin bazaitut, igortzeko Bonaparte Biltzarraren xehetasun eta programa.

Onart ene goraintzi oberenak. Zure

A. Irigaray

12-VII-58

M. André Tournier

Mon cher ami. Ci-joint la liste des adresses demandées par M. Lafitte, pour envoyer un n° d'*Herria* de propagande. Je crois qu'il serait mieux (aunitz dira bestela) d'envoyer dans une enveloppe comme imprimés. Le *Seminario Urquijo* tient à vous faire un lot des abonnés, mais pour le moment vous envoie liste de possibles, sauf le 1^{er} qui est abonné dès maintenant.

Vous recevrez mon nouveau livre «Prosistas navarros» (35) en basque bas-navarrais et baztanais: il m'a coûté beaucoup de temps, mais on m'a payé, sauf quelques ex.

Por esto le pido un favor : que me ponga en la vitrina, después de Vd leerlo, con un letrero que diga «*Nafarroako eskuaraz - Zubiri, Manezaundi eta Irigaray-Larreko*» pues por la portada nadie piensa que es en vasco, y me diga a qué precio se puede poner, 750 frs? Y cuántos ex. le envío, es la única forma de cobrarme algo de mi trabajo. A M. Lafitte he encargado le envíen un ex. y espero me dará una nota en *Herria*, les conoce muy bien a Larreko (36) y a Manezaundi y ahí se leerán fácil, me puede Vd hacer este favor?

Creo que poco a poco podemos llegar a hacer escribir sin fonetismos: si los suletinos escriben la palabra entera, aunque sea la suya, como *khorpitza*, o *ziana*, ya está bien. En mi libro se me han deslizado algunas como *artian* (artean), *miresgarrienian* (-enean), *azkenian* (azkenean), en cambio estan correctas *burian* (buruan), *eskian* (eskuan).

Zure adiskide.

A. Irigaray

(35) *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca = XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak, selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri Gortari (1867-1943) y Pablo Fermín Irigaray Goizueta (1869-1949)*; ordenados, anotados y prologados por Angel Irigaray, Pamplona: Institución Príncipe de Viana, 1958.

(36) Pablo Fermín Irigaray *Larreko* (1869-1949).

21-VIII-58

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Igorri dauzkizut 10 ex. Prosistas - 14, rue des Cordeliers, zuk erran bezala. Gero eginen tugu kontuak; bainan iduri zaut Tournier jaunak prezio apalegi markatu zuela, berari komisionea eman behar bazaio gainera. Negurri eta izari hortako liburuak hor (ez hemen jakina) 700 fr. egiten dute. Bainan, gauza hok ezin dira edatu jadanik.

Plazer nuke utz bazidazun zure kanta zaharren bildumatik, hortik astiroki iragaiten naizen batean. Nere aldetik, badut aitaren *inédit* izkiribu parrasta, inork ere iduri ez duena, gerlaz direlakotz. Arront jakingarri dira, bainan ez gira menturatzen geren eskutatik jalgitzerat.

Etortzen bazira, atsegin nuke agur egitea. Bestenaz, Mitikilen.

Zure adiskide eta zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

Zenbat balio luke Achille Luchaire, *Etudes sur les idiomes pyrénéens*, Paris, 1879?

Badut okasione bat. Mila esker denengatik bihotzetik.

11-V-59

Piarres Lafitte jaunari,

Ene jaun adiskidea. Atzo gure azalpena edo delako hori utzi nautzunean, ahandzi zitzaidan erratea Arrue (37) eta nere artean agertzen dugula Euskaltzaindiari.

Ez hauek erabakitzeke, bear bada, baizik kontseilu eske: ongi iduritzen bazako, komisione bat, bi hemengo eta bi-iru zuen aldekoekin izenda eta beren artean elkar hizkatu eta zerbaitean akort gelditzen balire, orduan bere aldetik, eta nai bada ez Euskaltzaindiaren izenean, zabaldu eta eskatu iritzeak eta oharkizunak, zenbeit idazlarieri, hor eta hemen, edatuen direnen artean, laupabost edo gutiagoei. Hala zuk orrazta dezakezu nonbaitean gure izkiribua frantsesera itzulikatzen duzunean *Herria*-rako, Euskaltzaindia edo académicos aipatzen denean, ez aipa eta berdin leenago ezarriz, bizkaitar edo lapurtar edo xiberotarrei gomendatzen diren eginbideetan. Berdin ekendu azken laupabost lerroak. *Arcaizar* esaten dutenean ez dut erran nai usatu bear direla-eta, zaharkituak geiago ulertzen ez direnik, estiloa baizik. Bistan da, Axularren *baderatzu*, *leidikeyela*, *cerauzten*, *deraukote* ordez usatu bear direla *baditzu*, *leikela*, *zieten*, *diote* eta zenbeit tokitan laburtzen al duzu ere, itz lerroalditan eta...

En resumen: Al final del escrito recomendar a los escritores den su opinión sobre esta propuesta. Y buscar la forma de que una persona entre nosotros se encargue de completar ese pequeño-breve vocabulario de términos culturales, de 1º enseñanza, Literatura, Historia, vida urbana, derivados; en forma similar al vocabulario por materias que publicó Vd. Este vocabulario lo podríamos iniciar aquí, dejando espacios en blanco para llenarlos ahí alguien..., quién podría ser?

Lasterrago egin naiez egin dautzut erdaraz, barka otoi, eta zurearen begira gelditzen naiz. Zure zerbitzari.

A. Irigaray

Kopia hori, otoi, gorde zadazu.

(37) Antonio Arrue (1903-1976).

22-I-60

Piarres Lafitte jaunari - Uztaritzen

Ene adiskide jauna. Igorri dautzut «Mogel eta Literatur-euskara» (38) ize-neko separata bat. Nahiz gaia berdintsua ukitu nuen Baionako ene itzaldian, zati batzutan franko diferent dira biak.

«Euskara eta Eskola» gaiari doakonez, hemen ere noizbait zerbait egin behar badugu, zuek ereman bidea jakin nahi ginuke. Ezpadatzu, beraz, denbora asko galarazten, esker nitzuke guri erratea leeneko iru ilabetean «Ikas» metodoaikin arkitu trabak eta abantaileak. I- Zer adinetik asten diren aurrak euskara ikasten, euskaraz dakitenak eta guti edo batere ez dakitenak, sail bat egiten dutenez. II- Errientez dakitenak baliatzen duten «Ikas». III- Eta nola edo noizko utzi gogo duzue, Dassance-k (39) aipatzen zituen recueil de contes, morceaux choisis, vocabulaire? *Gure Herria*, n°3, eder hortan aipatu chansonier horieri buruz, iduri zaut mutiko gazteendako on litakela kanta arin, *entraînant* oietako bat edo beste... *Bat bi iru lau – Atzo, atzo, atzo, atzo hil ziran amar atso – Gabilzan kalez kale – Agur Ziberoa – Festarik bear bada – Orra, orra, gure Olentzero* – eta halako. Bainan zuek, ikusi arau, obeki jakinen duzue segur.

Oraintxe berean hartzen tut zuk igorri liburuxka ezinago politikak: milesker anitx! Orai zuk erran zer igorriko dautzutan nere aldetik. Ezen nai nuke bigarren «Ikas» eskuratu, ateratzen duzuenean, eta berdin Hiriart-Urruty-ren liburuxka, bere sarian, jakina. *Gure Almanaka*-n ikusi dut atseginaikin izen-degian sartu dituztela: Eneko izen zaharra Iñaki berriaren ordeztu eta Patxi, Piarres, Joanes, Baladi, Jurgi, Errigobert, Adolf, Gabin, Kaximir, Patrik, Josepe, Albert, Urban, Errufin eta hola, emeki, batasun aldera.

Gure Almanaka 69 orrialdean Euskalzaleen xokoa delakoak on egin dezake, bereziki gure aldean, eta *Herrian* ere «Erran zahar» sailean sartzeko, baina iduri zaut berdin zuzen daudela –aita ikustera noha– eta –aitaren ikustera... Ganicheri erran– eta –Ganichi erran–. Nago sail hauek ondorio polita learkela, horko eta Gipuzkoako (Gipuzkoa zaharreko) erran moldeak parez par aipatuz, ateak geiegi hertsu gabe eskuarari. Bestela, hemengo gramatikalari berri batzuk dena itxuraldatuko daukute.

(38) Irigarai, Aingeru: «Mogel eta literatur-euskara» in: *Euskera*, 5. libk. (1960); 110-120. orr.

(39) Louis Dassance (1888-1976).

Gure Herria, n° 3 aipatu hortan (eta nahi nuke n° bat nonbait kausi). E. Goiheneche-n (40) artikuluan arrazoinez geografia sararazi nahi du, bainan erdi euskaraz ere, metodo oberena litake euskara irakasteko. Alemanian ikusi dutan bezala frantseseekin, Bähr zenari.

Webster-en kontutegiaren mikrofilmaz galde eginen zinueke?

Barkatu ain luze predikua, bainan hemen alde askotatik galdezka ari zauz-kigu.

Zure zerbitzari.

A. Irigaray

25-VIII-60

* * *

Piarres Lafitte jauna

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Zuk nai bezala eramanen dizkizut *Prosistas navarros* ene liburuxkaren 6 exemplario, hortarako erradazu hitz bat eldu diren astear-te-asteazkenez kanpo, Baionara joaten banaiz, uzten ahal zaitudan zure bule-goan edo hor dagoen andereari. Edo berdin zaizu Arbotin? Badut ustea elkar ikusten ahal dugula bada, Arbotin. Ez ote atsaldean hor ikusiko gure mutxiko dantza pare gabeko bat edo beste? Aspaldi gabiltza Nafarroako yantza eder horiek ikusi nahiez; ez dut uste obeago, arraiago denez plazarako. Etzen ba-tere gaizki izanen Esk. biltzarraren ondarreko mutxikoak ematea (edo Qua-drille bat), hala mutiko ttipiak abiatuko lirake, eta herrixkaetan emanen, jai-e-gunetan plaza pixka bat esnatzeko.

Kostatarraren artikulua atseginez ikusten, uste dut hortaz zenbait erran beharra badela. Aldi huntan hemen gauzak ez dire aisean..., gure artean ere zen-beit buru-berok (Eskualtz. laguntzaileak) obeago nahiez, dena desegiten. Ape-zen karta ospetsuak ere kalte ekarri euskara sailean gabiltzanei; funtsean bihoz-tun, bainan aise idorregi. Ez da sendoago abiatzen sail bat, bortizki mintzatuz.

Agian laster artio.

Zure

A. Irigaray

(40) Eugene Goihenetxe (1915-1989).

13-II-61

Piarres Lafitte jaunari

Uztaritzen

Ene jaun adiskidea. Lehengo egunean, asteazkenez, huts egin zintudan *Herria* bulegoan. Nahi nitzuke galde bat egin, sobera zuri denbora galarazi gabe. Baitut salgai Bonaparte-ren (41) obra batzu, eta eskea hartu dut Turkia-tik; galdegin dut han eta hemen, liburu zaar merkatariari, bainan ez dut ikasi zenbatsu balio duten, ez gutti gora beera ere. Ez dut geiegi eskatu nahi, ez eta guttiegi ere, pensatzen baitut aunitz balioko dutela liburu horiek. Katalogo batean dakusat Inchauspe-ren *Le verbe basque* (Bonaparte) (42) 10.000 frs markatua. Hunen arabera I. *Le verbe basque en tableaux* – II. *Règles pour composer* – III. *Conjugaison détaillée des 4 dialectes* (18 autres tableaux) direlako bakotzak balioko duia bi edo hiru aldiz geiago? Nori galdegin nezoke?

Othoi, emadazu zure iritzetik.

J. Fr. Krutwig gure kidearengandik hatzen dut gutun luze bat Atheneum bat hasi eta plantatu nahi duela Miarritzen eskuara erabiltzeko erranez; eta ene laguntza eta Euskaltzaindiarena ere eskatuz.

Dударик gabe baduzue saltsa edo asmu horren berri, hala bada, emadazu (egun eskaka gaude ezin asez...) zure opinioea othoi. Nik emanen deratzut enea. Espainia aldeko euskalzainen edo bestelakoen laguntza (ageria, bistan da) nekosoa litake, kopetan edo buruan bere izena eta Yon Bilbao-rena (43) (hau ere igesi edo fueratua, obeki errateko) agertzen badute beinikpein. Guttiago besarkatzen balu, geixago ertsitzen ahalko lukela nago.

Eta, zenbeit zehekerietan orrazi aldi bat emanez, banago sustaldi eta inarrosaldi bat bezala litakela, horko eskualzale gazteendako. Deus ezpadakizu, esplikatuko datzut zehekiago, beste batean. Bainan Euskaltzaindian zerbeit errateko (edo batere ez errateko), zure iritzea jakin nahi nuke lehenik.

(41) Louis Lucien Bonaparte *Printzea* (1813-1891).

(42) Intxauspe, Emanuel: *Le verbe basque*, ouvrage publié par le Prince Louis-Lucien Bonaparte, Bayonne: Veuve Lamaignère nèce Teulières; Paris : Benjamin Duprat, 1858.

(43) Jon Bilbao (1914-1994).

Gauza batzutan enago ados Krutwig-ekin, bainan motor eta eragille gisa, probetxagarri da.

Zurearen aiduru gelditzen da, eta eskerrak aitzinetik, zure adiskide zaar.

A. Irigaray

P.S.– *Herria* gero eta bixiago heldu da. Ziberoan berri eltzale berri bat behar bazinu, irakurle batzuk *archaisant* delako bat gutiziatuko ginuke. Et. Salaberry-k (44) kristauen batasunaz ontsa.

(44) Etienne Salaberri (1903-1981).

6-III-61

Ene jaun adiskidea,

Mil esker zure berriengatik; baliatuko ditut.

Zuk erran bezala pentsatzen dut, industrial biltzar horrerik buruz. Egin dakot arrapostu ene laguntza eskeiniz, bainan ardoari ur freskoa ixuriz ere...

Erran diot horko gazteeri eskua luzatzeko, beroarazteko, kantak erakatsiz eta mutxikoak. Zurekin ere arras, Eskualtzaindiari buruz.

Segitzen dut zure lan ezinago baliosa *Herrian* berriak jakiteko, ez xoilki eskual berriak, zure papera bakarrik baliatzen dut batzutan.

Zure adiskide.

A. Irigaray

24-V-63

Piarres Lafitte J.,

Ene adiskidea. Mil esker zure argitasunagatik: nik ere *lisatzea* (leintzia) dela uste dut; zurea hartu orduko frogak moldiztegira igorriak nituen.

Otoi, nai nuke berandu gabe nere iztegiño-saioa ukan ; nahiz ez den osorik egina, eskertuko nitzuke igortzea. Dassance J. ikusten bazinu, erraten ahal zenioke gauza bera? Barka otoi ene ausardia! Gero segitu behar baituzte beste leerroaldiak.

Ikusi dut *Enbata*-ren zenbeit berri-azalpen, biltzarrearen ondotik. Arras uste nuen bi urte iragan eta tenorea zela gauzak punperat heltzeko. Bainan iduri zaut predikuak gogorregi daramaztela. Behar bada gu zahartu...

Príncipe de Viana-n agertu ene euskal-erranerak (idiotismes) delako artikuloa (45) igorriko, Separatak dituzkedanean. Goraintzi oberenekin.

A. Irigaray

Badakizua Arotçarena (46) jaunak hartu zuenez ene iztegiño-kopia? Nun bizi da?

(45) Irigarai, Aingeru: *Para un diccionario vasco de modismos*, Pamplona: Aranzadi, 1962. Ondokoaren separata: *Príncipe de Viana*, 88-89. zbkiak.

(46) Sauveur Arotzarena (1892-1966).

25-XI-63

Piarres Lafitte Jauna

Baionan

Ene adiskide zaarra. Nere anaiak eman zautan Iruñen, orri hori *Herrian* agertzeko egoki bada, edo beste nunbait bestela. Beste norbaitek igorri bada-tzu berri bera, hala ere nik uste sar zitakela hau, hemen ezpaita batere aipatzen. Ondotik Hôtel de los 3 Reyes aundian eman ziguten oturuntza, 400 bazkaltiar, euskal kantu, itzaldi sutsu, euskaldungoa eta aroa gain gainetik, Gernikakoarekin finituz festa ezin ahantzizkoa.

Iruñe erdalzalean eztakit zer gertatu zen!

Mil esker *Herria* ene liburuxkarendako zure laudorio geiegizkoendako. Berdin Dassance jaunari, *G. Herria*-koendako. Biziki ona zure kazetan «Gazteen zokoan» agertu den elgarrizketa xarmanta!!

Ortographian beinik bein gero ta batago zuek eta gu: nik erraten diotet hemen, giputz euskaran eskas diren zenbeit hitz nafarro-lapurtarretik hartu beharko ditugula, zinez batasun aldera nai badugu. Atseginekin ikusten dut ere, Hazparnekoak, Dagorret-ek (47) eta halakok, *beste*, *bost*, *ostegun*, erabiltzen dituztela, *bertze*, *bortz*-en orde; E. Sallaberry-k eta beste nafarrek berdin egiten badute, beste urrats bat batasun aldera izkirioan; hala izkiriatzen baitute askok Ziberoan, Baxenabarren eta gaineratikoan. Guk segitu gogo dugu hemen kultur-itx zenbeit bateratzen bederik. Aurki artio. Zure zerbitzari ttipia.

A. Irigaray

(47) Beñat Dagorret (1927-1993).

2-XII-64

Piarres Lafitte jaunari,

Adiskide agurgarria. Igandean zuekin nintzen izpirituz; bainan, damurik, osagarriak ez lagundu. Lerro horiek erran gogo nituen Musée-ko bilkuran. Eta eskerrak berriz derauzkizut bihotzetik, ene alderako izan duzun oroitzapenarentzat.

Agindu bezala, ebaki hori igortzen dautzut. Tovar (48), Menendez Pidal (49), Areilza (50), Castells eta halako beste batzuen iritzeak ere agertu dira. Gauza bat aipatu da bein baino geiago: eskuaraz irakurtzen ikastea, traba bat izan ordez eskualdunendako, abantaila dela erdara ongi ikasteko. Pedagogoeak dioten egia hori (bi-eleketa) slogan bezala errepikatzeak on eginen lukela nago, zuk *Herrian*, errefrauekin egin izan duzunaren gisara.

Liturgiaz kestione, parada hau bezalakoa noiz berriz eskuarak? Itzulpenak finkatu baino lehen (ahal izan ezgeroz) bilkura bat egiten itzulikazaileen artean, zer iduri zaitzu? Batzuk besteen lanak irakurri ondotik. Eliz otoitzen mamia eta erran-nahia bera ere, orai artio baino argiago eta xingleago euskaralatu bearko da; konzilioak eskatzen duen bezala ere uste dut elitakela kalte izanen. Zure iritzea nahi nuke pondu huntaz.

Herria heltzen zait tenorez; nor da J.B.D. (51)? Arras atsegin zait. Berdin «Mendiz bestaldeko berri» egiten duena; Montejurraz diona bereziki; aberri zaleak itsutiak daude eta ez dute beren ona ikusten; hori Nafarroan argi ikusten dugu. Berdin mamitsuak Heguiaphal (52), Manex Pagola. Bainan Kanbotik M.L.-k diona ezin dut xilatu, Ekonomiari buruz. Nardagarri da beti aienka ikustea Eskual Herria ustutzen ari dela; industria falta dela..., bainan hori dena gure errua da: Nafarroan 10 urte hoketan izigarriko abiadura hartu du Industria berriak, norenganik heldu da hori? Ez erresumatik!

Beste gauza bat: Industria berriaikin ezta batere segur euskaldunak bere xokoan geldiaraztea; ezpadute industrialariak euskaldungoa sosa baiño geiago maite... Leitizan gertatu den bezala (fabrika batean autatu dituzte bertako langileak). Hendayan, D. Lohitzunen eta Baionan badira fabrikak, eta badoazi

(48) Antonio Tovar (1911-1985).

(49) Ramón Menéndez Pidal (1869-1968).

(50) Jose Maria Areiltza (1909-1998).

(51) Janbattit Dirazar (1937).

(52) Marzelin Hegiaphal (1910-1996).

Espainia aldetik langilleak egunero..., bainan euskaldunik gutti. Enbatiarrek eta [P. Larzabalek (53) ere] dioten bezain xinplea ezta gauza.

Ene anaie apezak erraten daut nafar-lapurtar Ebanjelio-Epistolak, igandeka, kausitzen ahal dituenek; baldin balitz, otoi, ekarradazu liburu bat eldu den batzarrerako; traba aunitzik egiten ezpadatzu.

Egungotz aski, beste aldikotz segida. Onart ene goraintzik oberenak.

A. Irigaray

P.S.– Gutiziatua nago zuk *h*-ari buruz egin artikuloa irakurtzeko.

Posible deia hemengoendako, *h* usatzeko ibilbide minimum bat aurkitzea? Agian zuk.

(53) Piarres Larzabal (1915-1988).

19-II-66

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Eskatu bezala, huna hemen Anthologia baten baldinkizun zenbait, ene iduriko:

I. Autore guztiak lerro-lerro ekarri: zenbat orrialde bakotxari eman. Denen artean 350 baino (anitz) geiago ez betetzeko, ondotik bahetik pasatuko.

II. Autore gorenak soilik; ez ainitz: gerta ditake euskalki batean geiago, eta beste batean gutiago; ez auta euskalkien arabera, kalitatearen arabera baik - Autatzeko ibilbidea - 1) gaia intresduna - 2) originalitatea - 3) edertasuna - erreztasuna - euskalkien urbiltzea.

III. Elizgaiak eta profano-gaiak balantzan eman: elizgaien artean, bixi, oituren dokumental diren zatiak, autatu; pizu, edo oraiko erlisione ideieri (konzilioa) segitzen ez dutenak, ez sar, Fr. Bartolomek edo Agirre Asteasukoak badituzte zati bixi eta arinak. Ez dira berdin Axular eta Mendiburu, Ubillos eta Añibarro.

IV. Euskalki baten autoreak, bertakoek autatuko lehenik; beste euskalki-koek boza dutelarik berdin.

V. Fonetismoak eken: etxe-a, emaztea, ogi(j)-a, mundu(i)a: bainan buria, negia et ahalako errespetatuz.

VI. Komeni litake (edo utz beste aldi baterako?). Kirikiño, Etxeita, Hiriart-Urruty,... sartzea: epea noraraino? 1900 - 1925; sortzea, hiltzea, obraren, agertzea? Eta Folklore elexar-ipuinak?

VII. Euskalkiak naasirik; mendearen eta urteen arabera; biographia labur bat, 10 lerro; azken aldian iztegi xume bat; zuk Anthologia frantsez batean erakutsi bezala. Urreneko batzarrean, autore bat prestatua edo asia ditaken batetik, finkatu ditazke xehetasun geiago.

VIII. Aurkibideak, autore-gai-eta euskalki-ka.

Hemengo Eskola-liburu-komizione-koekin elekatzeko, nai nuke horko maisu edo errientsa egoki baten izena (M. Mailharin); iztegiño batzarrean izendatu hiruen gainetik, zuen aldekoa ere...

Nai nuke Lapitze (54) ikuskatu: ekartzen ahal zenidake? Eta Dasconaguerre (55) uste dut sartu beharko dela ere Eguiateguy (56) bezala. Laster artio. Zure

A. Irigaray

(54) Laphitz, Frantzizko: *Bi saindu hescaldunen bizia : San Inazio Loiolaçoarena eta San Franzizco Zabiereçoarena*, Bayonan: Lamaignère Alhargunaren imprimerian, 1867.

(55) Daskonagerre, Jean Baptiste: *Atheka-gaitzeko oihartzunak*, Bayonan: Lamaignère Alharguna imprimerian, 1870.

(56) Egiategi, Jusef: *Lehen liburua edo Filosofo huskaldunaren ekheia: [(1785)]*, Txomin Peillenek prestatua, Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.

S. Sebastián 14 julio 1966

Adiskidea. Joan den garagarrilla (juin) 23 eta 30eko, eta uztailaren 7garreneko astekariak etzaizkit heldu, Postan ere baterez, beste abonatuak hartu dituzte. Ezbada xuxentzen utsa ekar zenitzazke Batzarrerat? edo bestenaz Agence Beyris-Moraiz Endayarat eta utz Esnoz jaunari.

Ene «Esbozo» lantxoaren berri txoil bat batendako toki txar bat ez ote zure astekarian? Eskerrak aitzinetik, orogatik.

Onarzkizu ene gorantzia oberenak.

A. Irigaray

5-IX-66

Adiskide jauna,

Ezpeletan behar bada, elkar ikusiko dugu. Nahi nuke, ahalez geroz, bere sarian *Herriaren* n^o ... «Ttanta Helenaren kontseiñuak» dakazkiena; galdu dut eta behar nuke erdarazko itzulpena egiteko. Balio luke dudarik gabe; ene partez erraten ahal dakozu andere horrerri ari beretik segitzeko gisa hortan berean, premia handiko gauza da; erdaraz ere ez dut uste, laburrean, holako artikulok zuzen, zeatz, argi, ausarta (eta gisa berean jendetasuna galdu gabe) dukegunik.

Maitek Pariserat nahi luke, frantsesean trebatzeko eta tituloa ateratzeko; baiño lehenago aurrak zaintzeko edo halako, behar duten etxe prestu bat aurkitu behar, han ezagutzak dituenen baten gana jo behar, ematen ahal dirazu argibide zerbeit? Barka ausardia.

Otoi, Arradoy adiskideari errazkiozu ene eskerrak, eta irakurtzen dutanean bere liburu pollit Jatsukoa (57), eginen diotala artikulok bat. Erdal itzulpena azierto handia, berri jakingarriak, Nafarroako konkistan bestalde, erabe duela ematen du, euskaldunen kontra gudukatu zela Eneko, agertzeko (hau zuzen leeneko izena, dokumentutan ikus daiken bezala, aise euskarago eta zaharra-go Iñaki berri hori baino).

Ez ahantz zure *Loretegia* (58) liburuxkak, baditut non barreia hemen. *Herriari* edo bestela, on litzaiguke (on baino premiatsuago) *-h-* horien erregelak labur batzuen ematea.

Eugene Goyeneche-ren *Notre terre basque* (59) agortu deia? aspaldi hartu orraztapan batzu eskeini nizkion egilleari. Eztakit zertan dagon. Laster artio, agian.

A. Irigaray

(57) Arradoy, P.: *San Frantses Jatsukoa : biographie basque de St. Françoise de Jaxu et Xavier*, San Sebastián: Izarra, 1966. Testu elebiduna euskaraz eta frantsesez. P. Arradoy Piarres Narbaitzen (1910-1984) goitizena da.

(58) Lafitte, Piarres (biltzailea): *Eskualdunen loretegia : XVIgarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia. (1645-1800)*, Baionan: Laserre Liburutegian salgai, 1931.

(59) Goyhenetxe, Eugene: *Notre terre basque : notions de géographie historique et culture populaire*, Bayonne: Ikas, 1961.

28-VI-67

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Ausartzen naiz lerro hauen izkiriatzera «Mendiz bestaldeko berri» deitu artikuloendako entzun izan ditudan kritikak direla kausa.

Interesatzen ezpazaizkitzu, saskira bota ta kito, ezta batere galtzen.

Neretako eta nik uste zeienendako, hemen irakur ez ditazken berri horiek, onartuak izaten oi dira, bainan bistan da euskalzaleetan badirela, Espainia beraren jendeendako minbera direnak ere.

Artikulo horien egilleak dion bezala: «*eskualdunگو horren inguruan, behar ginuke muntatu politika batasun bat*». Horrekin ados daude aunitz hemen, eta berak aipatu plana edo programaz ere Nafarroan beha daude, zuek eta gipuzteak eginen dituzuen itzulpenari; zerbaixka aldatuz (edo obe baterez) balia ditzakete. Bainan hemen egiten ari diren itzulpena ikus ondotik, gaizki ibiliko gara Nafarroan, ontsa baliatzeko, zuen itzulpenak nun edo noiz ikus genezake.

Euskalki batere ertsiegi lotu baino, pixka bat arkaizatu bearko ginukela uste dut, hala batasun aldera urrats bat egin ditake euskalki bakotxean, eta zergatik ez, otoitz bat edo beste, ..., euskara bateratu batean? Alde batetik euskalki bakotxean zaarragoen gisara ematea, eta bestetik «aggiornamento» delako bidean abiatzea, ezta gauza erreza, balio du gogoeta astiro egitea.

Oihenart-en izkiribu zahar horiek (60) nun argitara gogo dituzu? badut gutizia irakurtzeko. Baditut zenbeit kanta zahar, beren soiñua ezdakitelatela, erakutsiko dizkizut Uztaritzerraino aillegatzen naizen batean, bide nabar posible litzaidaket Apezarenaren bertsuak irakurtzea?

Euskaltzaindiko buruzagi baterazaile eta bi aldetan etsai baino, adiskide geiago duen bat billatu behar dugu. Bitartean, direction collegiale delako batean, nik uste Lojendio-k ere parte hartuko lukela. Zure erranera dago zure adiskide.

A. Irigaray

(60) *L'Art poétique basque* d'Arnauld d'Oyhénart; avec une introduction de Pierre Lafitte, Baiona: Gure herria, 1967 [Ondokoaren separata: *Gure herria*, 38. urtea, 4, (1967 urr.)] eta *Une lettre inédite du Père Joseph Moret à Arnaud d'Oihénart : (28 Février 1667)*, traduite et annotée par Pierre Lafitte, Bayonne: S. Sordes, 1968? [Ondokoaren separata: *Bulletin du Musée Basque*, N. 39, 3e période n. 17 (1er trimestre 1968)].

18 Astelenean-III-68

Piarres Lafitte adiskide jaunari, agur. Izendegia edo Nomenclator (61) delakoren ale bat igorri dautzut Postaz: utsak baditu, baina Bilboko Enciclopedian agertu baino lehen, astirik gabe, bidali nai izan diotet euskalzaineri, zerbait oharpen baldin bazinuke, otoi erradazu, edo batzarrean erran neri. Leenago beste kopia bat igorri nautzun, Haritschelhar (62) edo Dassance-ri edo erakusteko, azken hunek bildu omen ditu, Antroponymoetan errotu izen batzu, nai nituzke jakin. Igortzen dautzut hemen Santamariak (63) agertu artikuloa. Príncipe de Vianan nik ukan mokokaldi bateri buruz irakurri izanen duzu agian.

Ikus artio, beraz.

A. Irigaray

(61) *Nomenclator Euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca* = *Euskaltzaindiak onartutako euskal izenlerroa*, Bilbao: Euskaltzaindia, 1966.

(62) Jean Haritzelhar (1923).

(63) Karlos Santamaria (1909-1967).

Don. 3-V-69
Esnaola-11

Piarres Lafitte jaun adiskideari agur: barka, Oiharzabal adiskidea baliatzen baldin badut Ierro batzuen zuzentzeko. Uste dut horrek helarazi dazkitzula ene Izendegiak: zuk eskeini izenak, otoi, igor lehen bai lehen moldizte-gira eramateko eta salgai paratzeko. Ustez Euskaltzaindia noizbait bere eztabaia eta erabe horietarik aterako den. Otoi, duda horiek xurituko dauztazu, paper berean marratuz ongi daudenak, neketan sartu gabe.

deitu zenidan – deitu zidazun
ikus(i) nitzun – ikus(i) zindudan
deitu ninduzun
igor(ri) zaiozu – igor ezazu
aitor – aitortzen – dut
paretari beha – paretara
(zer adiarazten) iguzkiak iguzkiari?
(“ ”) gizona gizontei...?
aditu natzun – zindudan
jo zidazun – ninduzun
jin zitzaitan behar nuela lagund(u)
” zen behar giniozkala guziak erakuts(i)
ama ikus(i) balu
jakin banu zer behar nuen ikus(i)
arno baso bat – edo baso bat arno?
borz liber(et)akoa (sosa)
hirur urte(ta)ko aurra
eror beldur zen?
arnea(k) ona iduri zuen?
(zer adiaraz?) zuzen – xuxen
laket zaio Uztaritzen – laketzen du Uztaritze(n)
laketzen da – laket da?

Mil esker aitzinetik eta ikus artio. Zure

A. Irigaray

P.S. – Plazer nuke Hiriart-Urruty-ren (64) hutsa bete ahal bazinukete, ordezko eskualzale konzienziadun batez: uste dut azken parada zitakela eskuara jaioidako!

(64) Jean Hiriart-Urruti (1927-1990).

17-V-69
Donibanen

Piarres Lafitte jaun adiskidea,

Milesker igorri dizkidazun lezionengatik. Eskeintzen dautazun izkiribua ikus dezaket astirik hartuz.

Eztut denborarik geiagorako eta ikus arte. Ezpadautezu igortzen, ematen ahal zenioke batzarrera joaten den Donostikoren bat, nik huts egiten badut.

Zure adiskidea.

A. Irigaray

29-VII-69

Piarres Lafitte jaun adiskideari, agur.

Igorri nitzun Narbaitz (65) adiskidearen bidez, zuk eskeini izenen eskea, moldiztegira sartu behar baitut, delako Izendegi edo Nomenclator, zehiarkatu bide da mandatua, otoi, bi hitz ahal bezain laster, ezpadituzu prest. Heldu den batzarrera enaizela joanen uste dut.

Emazkiozu ene goraintziak Larre (66) jaunari, uste dut euskal konzienzia piztuko duen gazte multzo batzuen artean; zaharrekin ezta deus egitekorik, pasatuak gira... Uste dut osagarri onean zaudela. Betiko agurrakin.

Eta nafar paper haiek? Agertu da Nafarroan 14 gn. mendeko izkribu eskuara labur bat (67).

A. Irigaray

(65) Piarres Narbaitz (1910-1984).

(66) Emile Larre (1926).

(67) Idoate, Florencio: «Una carta del siglo XV en vascuence» in *Fontes Linguae Vasconum*, 2 (1969), 287-290. orr.

11-Esnaola
18-XII-69

Piarres Lafitte jaun diskideari,

Badakit eman zitzutela ene itzulpenaren etsenplario bat *Jostatuz mintzaira ikas* (68) izena duena. Zure iritzea jakin nahi nuke. Batasun aldera juan nahi izan dut pitta bat: giputz euskalkiko XIXgarren mendeko autoreak geiago segituz, oraikoak baiño, eta nafar-lapurarraren kutsu bat ere sartuz. Badut uste hor ere zerbait baliatu zaitekela, zenbeit hitz orraztatuz (erran-esan / bertze-beste...) nahiz azken hauk – beste-bost-ostegun– aunitz usatuak izan Baxenabarren eta Ziberoan, batasun alderago joanez.

Ene Izen-ordea ezarri dut, geren arteko bekaitza... eta hortarakoxe giputz laguntzaillen izenak sartuz; baiñan nekea eta erresponsabilitatea nere gain dira. Nere izenak ezditut estali nahi, horrendako.

Predikuak ikusi ditut: – giputz – dirala ezta dudarik, Irun muga alde horako segurki, nafar kutsu batekin. Badira erranera eta hitz ohargarri – ehor zulo – edo holako zerbait... uste dut *Euskera* aldizkarian sailka argitaratzeko, ezliarakela gaizki Fausto Arozenari (69) galdeginen dakogu Lizargarate hortaz.

Fabore bat, otoi: *Euskeran* ikus dukezu hiru euskalkietan komunak diran hitzen bilkoa; nahi nuke (h)artu - (h)ilabete - eta halakoetan *-h-* usatzea libre utz ditazkenak marratu ditzadazun, hemen ahal bezain guti sartzeko; milesker aitzinetik. Batzarrera eramain dut Lista hori.

Nik bururatu Izenlerroa igorriko, komisionekoa zarenezgeroz, gaiñera. Zure adiskide zaharra.

A. Irigaray

(68) *Jostatuz mintzaira ikas* : *In eta 2n ikastaroa*, egilea, Andrés Méndez García; itzulzaille, A. Apat-Etxebarne, Salamanca: Anaya, 1969. A. Apat-Etxebarne Aingeru Irigarainen (1898-1983) goitizena da.

(69) Fausto Arotzena (1896-1981).

5-II-70

Piarres Lafitte jaun eta adiskideari. Igortzen dauzkizut Etxahonen bi artikulo, joan den hilabete erditsukoak; ez dut beste kopiarik, eta nai nuke eta eskatuko nitzuke, otoi, Haritxelhar-eri erakustea, trabarik ezpazinuke milesker aitzinetik, naiez geroz, aurkituko nuke beste kopia bat geroago, Iruñean: atsegin dut elkarren berririk batere gabe, ikusmolde bertsua izan dugula. Halakoik hala igorri dautzut, nere Metodoaren agertu berria (Iruñean), barka ene arrokeria, baitakit Iruñeko halako berriak atsegin ditutzula; badira 300 aur Ikastoletan.

Badakit eman zatzutela etsenplario bat. Bainan eztut ikusten *Herria* urteberriz aitzina; gorde dizatela numero horiek, Hendayako adresa bat bilatuko dut.

Zure izkiribu-predikuak hemen ditut; nai zinuekia zuk erran horko norbaiteri hemen ematea, ezin jinik bazaude batzarretara?

Ziberoko katixima ikusi dut: pollita da, nahiz batasun aldera pittin bat geixago egiten ahal zela uste: beita = bait / hurian-hurean / eta konsonanten ondoko -/z-ak... Hemen ere ez dut uste gauza handirik egin dutela Liturgian: kexo dira giputz anitz.

Egon beti osagarrian eta mil esker zure bi irakurgaiendako, arras polita komedia, nor da egilea? Zurea.

A. Irigaray

21-III-70

Lafitte Piarres, adiskide jaunari, agur.

Alfabetatzekoen artean edatu den orri hori igortzen ditzut; heien buru nik egiten baitut, Euskaltzainek erabaki garbi hartu gabe, ezin diotet baimenik eman.

Neretako xoilik, ausartzen naiz zuri galdegitera *-h-* letra nai eta naiez sartu beharra denaren hitzak markatzea, edo laburrago bazaitzu, zein hitzetan ekendu litaken.

Intxausti andereñoak berak ekar lekiket orri txoila, deus besterik gabe. Eta hala nahi baduzu, ezdut zure izenik salatuko; hau diotzut, batzarre batean Iratzeder-ek (70), astapeneko *-h-*ak eken ginitazkela, baizion demostratibotan ezik.

Guretako hemengo nahaspilla hau ematzeko, aise bide errezagoa litake, Iratzederrena; eztakit ordea zillegi litakenez.

Joan den ilabeteko *Herriak* ezdira heldu.

Barka ausardia eta onart ene gorantzik oberenak.

A. Irigaray

(70) Xabier Dihartze *Iratzeder* (1920).

Don. 8-V-71

Adiskide. Ez dakit interesgarri direnez zirrimarra horiek: *Umeen deia* (71) deitutakoa, ongi bazaizu argitaratzea hor *Herrian* edo nunbait eskatzera auzartuko nitzazuke. Iduri zaut, irakurleak jakitea komeni dela, liburu handi hortan, aur-kontu edo ipuin naturalak kausitzen ahal direla, baina ez tirala denak berdin. Josecho Uranga-kin (72) egon nintzan Iruñean, eta arras mintza errexa kausitu nuen artikulo bat euskaraz espero duela *Fontes* edo *Cuadernos*-erako, erran zidan; eta gogotik artuko duela halakorik, gaia funtsezkoa baldin badu, baina ez lirikoa edo halakoa. Pentsatu dut zurea ote den...

Idazle batzu ari dira hemen (ni ez nago etsai) deklinazione, morfologia eta ortografiari buruz, erdi bide bat onart dezan Euskaltzandiak eskatzeko zenbeit kasu opzional utziz: duen-duan / dire -dira / ez daki-eztaki / dan-den / semearen ikustera-semea ikustera / eta halako.

Berdin *-h-* grafiarekin; erregela errez batzu onartuz: bokalen artekoak eta demostratiboetan, eta lehen epe edo urrats huntan izen astapenekoak utz geroarako; geienentzat arras zailla baita egiten.

Villasantek (73) berak [Michelenak (74) ere] bere *Hacia la lengua literaria común* (75) delakoaren p. 69ean dio: «...*resulta difícil para vascos meridionales... los mismos v. franceses no tienen un uso uniforme... Se hace preciso una fijación... dejando tal vez algunas como facultativas... Dejando para un paso ulterior la adopción de la -h- de comienzo de palabra.*» Goazen epeka edo sailka (-ll- eta -ñ- ere onartuz: irriño – amañi – nimiño – Peillen – Gotañe – Urdiñarbe – Bithiriñe, etc.). Ikastoletan ere zorabiatuak dabilta, eta zerbait eskola ofizialetan ere (Beasain, Legazpia, Zarauz) asi dira gatzetxoan artean «Concurso de redacción en castellano y euskera» delakoak apailatzen, eta beharrezkoa dute ibilbide argi eta errez bat.

Hainbeste saltsakin aspertua zaudela uste dut, bainan neretako zure iritzea eskatuko nitzuke, ez barreiatzeko besteeri.

(71) Torres, Ismael: *Umeen deia*, Bilbao: Claret, 1971.

(72) Jose Esteban Uranga Galdiano (1898-1978).

(73) Luis Villasante (1920-2000).

(74) Koldo Mitxelena (1915-1987).

(75) Villasante, Luis: *Hacia una lengua literaria común*, Oñate: Ed. Franciscana Aranzazu, 1970.

Egin dut artikulo bat Petain liburuari buruz (76), bere laudorien artean, baditu sail pollitak, Eskolari buruz, zuhurtziari buruz, bainan ez dut batere kausitu euskal Eskolari buruz, alta Petainek zerbait egin zuela nago, eskualdekatze pondu hortan. Gordetuko datzut ateratzen denean.

Ez dut ongi kausitu, Larresorok euskaraz ematea (Oihenart) Eug. Goihe-
neche-ren aitzin solas baliosa (77); hala ere aldatzen ditu izenak eta beste –
Oihenart (e) – Anaut (Aillande) – ez ote du nunbait izkiriatu. Zillegi balekit,
errakozu otoi naiago dutala frantzesez irakurtzea, eta espero dugula Oihenar-
ten berri geiago argitaratzea nunbait; gure euskal izkiriant jakitunen berrien
goseak gaudela. Barka ausardia! Eta naikoa bada egungo: segur nekaarazi zai-
tudala. Zurea.

A. Irigaray

P.S. – Gure iztegirako (Euskaltzaindiko bulegoarekilakoa) igortzen dituzunengatik mi-
lesker, eta frantses sinonimoak ere onartuak, itz geiagotan ere onartuko, neke handirik
ezpada.

(76) Zubelet, Domingo: *Petain Marechala: Frantziaren aitzindaria*, Toulouse: Imprimerie Régionale, 1941.

(77) Oihenart, Arnaud: *Atsotitzak eta neurtitzak*, Oihenarte; Larresoro'k prestatua; Eugenio Goihenetxe'ren hitzaurrea, Donostia: Herri-Gogoa, 1971. Larresoro Jose Luis Alvarez Enparantz *Txillardegiren* goitizena da.

27-I-72

Piarres Lafitte
Ustaritz

Ene adiskide jauna. Igorriko datzute Editorialetik ene liburuxka bat *Noticias y Viejos textos de la lingua navarrorum* (78).

Berdin Haritschelhar-eri beste ale bat. Merezi badu, hitz bat otoi *Herrian* eta Haritschelhar-ek *Gure Herrian*. Zurea.

A. Irigaray

(78) Irigarai, Aingeru: *Noticias y viejos textos de la «lingua navarrorum»*, A. Apat-Echebarne, San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1971.

3-VII-75

Piarres Lafitte J.
Uztaritzen

Adiskide agurgarria. Hartzen dut *Herriatik* – zor ditudan sariak– baina hor ikusten ahal duzun bezala, 1973ko urtean kontua makur dago; fitxa hartan nik dudana eta erakutsi nautzunak – 35 fr. markatzen du: 1974 eta 1975koak eztakit xuxen daudenez-. Diruzainak argituko gaitu.

Beste kestone. Hainbeste jende euskara ikastera leiatzen da, baina geienak aste batzuen buruko hutsegiten dute; jende arrontak gramatika guti daki edo baterez; iduri zait orai anglesa edo italianoa erakasten den gisako metodo ximple bat behar dugula baitaezpada; hemen garbizale-perfektoek borondateak ondatzen dituztela uste dut; gramatikatik eta sail zailenetik asirik, fraseka (eta deklinazionetik) asi ordez, errezenetik gaitzagora pasatuz.

Ez duzueia halako zerbait? Badakit eztela aski metodo labur bat osatzea, irakasleak ezpadu erakasteko sorginkeria hura, jakinduria baino geiago. Hemen Ikastolak makur doatzi, pedagogía xumeenari kasu guti egiten diotelakoz... eta Batzordeko etsaminazaleek berek uste dut kasu geiago egiten diotela jakinduriari, beste zera batzueri baino (jendetasuna... bokazionea edo jendeartze ona... eroapena edo egonaria...); zuk baino obeki nehork ez nau argituko gai premiatsu huntan.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

19-IV-78

Pierre Lafitte jaun eta adiskidea. Berantetsia egon zaitezke ene yardenenik gabe; eskerrak emateko igorri zenidan liburuxkarengatik. Ezdakit interesik duenez zuretako artikulo horrek hemen beti mokoka... hau bakarrik baltz nonbait hor! Zer dio Larrek? Emazkiozu, otoi, ikusten bazinuke, ene goraintziak desegu oberenekin. Sartzen dituela *Herrian* badakusat Satrustegiren Izendegitik euskal izenak... alta bada 10 urte lehenago argitaratu zuen Retanak, gurea, erdal itzulpenekin (79).

Bilbaoko Barandiaran-i (80) eta Ajuriaguerra-ri (81) egin omenaldiak izigarri ederrak, goratasun aundi batean, *Diario de Navarra*n sartuko dut berri xehe bat: euskara ere sartu zuten ongi aski.

Etzara agertzen Eusko Ikaskuntzako bilkuretara? Nola idatzi behar ditugu Chirac, Chuenlai, Chile...? Nik uste hala hala, Dassance, Labeguerie, Elisalt eta horiek bezala...

Ikus artio, agur batekin zure lankide.

A. Irigaray

P.S. – *Herrian* agertu «Orreaga» artikulo ederra zurea deia? Nik ikusi dut 27koa bakarrik, beste ere ikusiko nuke... Zer gisa da *Le nationalisme basque en France* de Malherbe?

(79) *100 libros vascos fundamentales y diccionario de nombres euskéricos*, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1970.

(80) Jose Migel Barandiaran (1889-1991).

(81) Juan Ajuriaguerra (1903-1978).

Piarres Lafitte jaunari,

Ene yaun adiskidea. Ikusi dut *Gure Almanakan* ene liburuaren erreklama egiten duzula; mil esker derauzkizut lehen lehenik. Juan den urteko *Gure Almanaka* galdu dut, eta nai nuke exemplario bat, edo gutienik *Izen* (prenoms) *lerroaldi*-aren bi horri horiek: 2-3 horiekin aski eta Tournier adiskideari erran bazenioke igortzeko eni, beste mil esker igorriko dizkizut. Nai ginuke batera eldu, ahalez, izendegi eta geographiaren kestione bitxi huntan, bai ipar-aldekoekin, gero phonetikaz, izkiriartzean, edo teknika eta kultur hitzetan, graphian pittin bat asiak garen bezala, zorionez hemengoek onartzen dute *h* iguingarriak!! eta zuek bearbada xokoño atean bederik, *tx* onartuko. Eta gero, Baxenafarroko *beste*, *bost*, *ostirale*, edatzen baldin baginuke pixka bat... urrats polit bat aitzinerat egina litake. Ez deia tenore eta sasoi ona, hortaz zerbeit egiteko? Alta bada, Euskaltzaindiko batzarrean pentsatu zen zerbeit (guti guti...) egin behar litakela, bainan akort zuek eta guk prestatzen ari gira zerbeit titulo edo paragrapho.

Zure adiskide eta zerbitzari.

A. Irigaray

Igandea-28-Mayatza

Piarres Lafitte jaunari
Uztaritzen

Adiskidea. Joan den bazkarian ez ginuen tarterik izan, Izendegi delakoaz mintzatzeko; ez eta hor duzun ene artikuloiari orraztapen bat egiteko ere.

Berandu ez balitz, bospasei hitzen aldaketa nai nuke; trabarik gabe bitan da. Hor duzun *Eskuarak urbiltzeko bidez* delakoan, azken lerrotik gibelerat joanez, 41garren lerroan dago:

«*Uste dut ordu dela jadanik bizkaitar-nafar-lapurtarrek ikas dezaten...*»

eta nai nuke eta behar luke:

... Uste dut on litzakela bizkaitar-nafar-lapurtarrek ere saia daizten geiago giputza irakurtzen.

Azkenetik gibelerat kontatuz 4garren paragrafoan, Labayen-ek dion bezala hitzekin asten denean. Eta artikuloiaren azken 3 lerrotan ere dio: *idazlarien artean fanatismo guttiago balitz eta predikari ozenenak...*

Eta behar luke:

Idazlarien artean berekoikeri guttiago balitz eta gidari egiten dutenak zentzukoak balira.

Gure bitarteko honen bidea igortzen dautzut hau, tenorez hel dadintzat.

Mil esker aitzinetik. Zure

A. Irigaray

P.S. – Otoi, abonatu berri baten izen deiturak har, *Herriarako*; heldu den» numerotik beretik. José Joaquín Irigaray – calle San Juan – 102 – Pasajes de San Juan - Guipúzcoa. Heldu den numeroak ekarriko ote du, igandean zortzi eginen denez. Bestaberriko euskal proosinoa Heletan, Iholdin, Armendaritzen eta? Hemengoek nai lukete tenorea eta xehetasunak jakin Hendayan nun salgai *Herria?* astekarian berean zertako ez ezarri?

M. Pierre Lafitte

Othoi, Izendegi-rako zinituenak igor, fite sartu behar baitugu moldizte-
gian.

Interesatu dirate, Boussard *Irrintzina* (82) gure erdarara itzulikatzeko; ba-
dakit orraztapenak eginak dituzula, beharrezkoak dire. Ez ahal ditut ikuskatu-
ko? Beste nafar eskuara paper zahar honekin batean. Goraintzi.

A. Irigaray

P.S. – Uste dut Sánchez Carrioneri nik egin «Sobre geografía lingüística de Navarra
nota bat» eman nautzula. Bai eta *Literatura vasca*, versión castellana. Eta toponomás-
tica de Artajona: erradazu intresatzen zaizkitzunez (ezpadituzu).

P. Narbaitz eri dagoela aditu dut; ikusten baduzu, errakozu, otoi, datorrenean deitzeko
nere tel. 417 498-ra; eztakit bere adreza.

Aurizko bestan atera foto bat gordetzen dautzut, zuk nahi bezala.

(82) Boussard, Léon: *L'irrintzina ou Le destin des basques*, Paris: Robert Laffont, 1969.

Esnaola 11 - S.S.

M. Pierre Lafitte
Ustaritz

Nere yaun adiskidea. Aspaldi da eztugula elkarr icusi ez solastatu, ordia, noizpait litake ordua.

Icusi nuen Donibaneco aldizcarian, irakurgai bat zuri ukitzen zitzuna, baiñan etzitzaidan atsegin izan, ezen uste dut gramatica geyegi derabilazula eta euscara ikertze soberakina, bizigarriago zait elburu bat baino bidetzat artzea euskara gauzak sakonak edo irrieginarriak, hunkigarriak edo atseginezkoak errateko; ots, zuk ain ongi eta beteki eta zuhurki egiten duzuna astekari ederean, artero, ishillean, ospe iduripenik gabe, ederki.

Badakit lanpeturik egonen zarela neri ihardesteco, baiñan othoi, zuk ez-padazazu, errazu zure lankide bateri... erantzuteco galde huneri.

Ari gara iztegiño bat egitecotan eta zalantzan gaude graphie-ari buruz, emen *r* eta *e*, alde bat utziak dira; conturatu dira hambat, traba besterik ezdira, eta aunitz ere, *x* (gosho), eta *tx* (eche); zein artuco lirazke or obekienik, *gosko* edo *goxo*? *eche* edo *etxe*? Ala ere, uste dut egin bear direla itz multzo batzu erdara-escuara: de la vie urbaine, de la culture élémentaire (Ecoles primaires); artuz erdaratik zuzen zuzenak, sciencia-tikako ainbeste hitz, nola Arithmetika, apendizitis,... Zer zaitzu? Agur handi batekin zure zurea.

A. Irigaray

Othoi, zuzendu Martin Elso, Ainhoa-ra.

...

Oraintxe bi illabete ta erdi beranduago eskuratu dirate agorra-ren 4garreneko *Herria* astekaria. Iduri ta urbil, arras apart gara eta egiazki arrotz. Eta numero orretan irakurri dut P. Lafitte-ren artikulua bat frantsesez, «Bonnes nouvelles de l'Académie basque» derizaiona.

Akademia orrekin adiskidantzan bai nago, badakit gauzak ez direla *Herriaren* buruzagiak erraten duen bezalache gertatu.

Banago ere, on baiño kalte geyago ez duenez egin artikulua orrek zombeitan buru minberetan. Berandu izanen dea orai gauza zaharren churitzen astea?

Dena den, irakurleak jakin dezan, errain dut Euskaltzaindian erreboluzionerik ez dela gertatuko «langue littéraire» orreri buruz; euskalari geyenek uste bai dute ez dela orai tenorea, Gipuzko-eskuara eta lapurtarra zimikoka as daizten. Ez orai ez nehoiz ere. Oraiko eskualzaleen nai gurea, eskuaraz min-tzatzen.

...

Lafitte jaun adiskidea,

Hor dituzu zuk eskatuak: Larreko-ren biografia labur hori, ez da nik egi-
na, eztakit non agertu zen hil zenean. Berdin zait zure artikuloa (aitari buruz)
Herrian agert edo hemen *Eganen*. Zurea.

A. Irigaray

Antola *Herriaren* trabak, otoi.

Luzaide, 1935-eko Agorrilaren 12-an

A. Irigaray adichkide maitiari,

Dakizun bezala hemen niz sortherri chokoan uda gochoki iragaiten. Deithoragarri da nola ari den erdara hedatzen, ez bakarrik karabineroen ganik baina eliz liburuchka, revista *La verdad* (83), eta holako bertzeen ganik, denak erdaraz, bazterretchetaraino helarazten dituztenak.

Gaitz izigarri horri (a ese) ihardoki behar dugu.

Orai berean igorri dituzte Iruñetik eliz liburuño batzu, *Mi Jesus* idazburearekin, Bescansaenian saltzen direnak, 30 hamarna sos, sei zortzi urtheko haurrentzat.

Bada hemen *Katichima* bat, eskuarazkoa, aita Intzak egina (84), baina hemengo hurrek ez dute konprenitzen erdizka bezik, eta ez du arrakastarik.

Hemengo hurrek behar lukete Benabarreko edo Laphurdiko eskuarazkoa.

Eta zuk, Uztaritzeko Laffiten adichkidantzaz baliaturik etzinukena zerbat ardietsiko harenganik, hunat igortzeko han duaiketena dituzten eliz liburuño eta katichima eskuarazko horietarik?

Euskeraren adichkideek behar lukete bere gain hartu lan hori.

Bertzenaz, ephe laburrik barne ithoko du eskuara erdarak, bazterretchetan!...

Hori liteke gauzarik urragarriena (desgarradora) eta ahalgegarria.

Izurrite horri behar dugu buru egin.

Heda ditzagun Benabarreko edo Laphurdiko eskuarazko eliz liburuñoak hemengo hurren arthian. Berek eta aita-amek ere, nahi lukete, baina orai denak Iruñe aldetik eta erdaraz ekhartzen dituzte.

Mintzatzen niz bakharrrik *Katichima* eta hurren liburu ñimiñoetarik (pequeñitos).

Uztaritzen edo Baionan badira duaiketena.

Agur, eta goraintzi amultsuenak.

E. Zubiry

(83) *La Verdad: hoja parroquial de la Diócesis*, Pamplona, 1931-

(84) *Kristau ikasbidea*, Mujika ta Urrestarazu'ar Mateo Iruñako Gotzai Jaun guziz agur-gariak agindurik Intza'r Damaso A. Kaputxinoak Naparrorako egiña, Iruñea: Iruñako Kaputxi-noetan, 1927.

Monsieur Pierre Laffitte
Bayonan

Nere jaun agurgarria eta aspaldiko adiskideari. Barkatu, baño, Jainkoari esker, bizi nahiz orañik, xahartua bai baño... gogoz gazte.

Herrian, lan ederra egiten ari zarezte. Lehengo *Eskualdunari* zorrik ez dio. Mugan bertan bizi den nere adiskide batek, noizpeinka bialtzen dizkida *Herria* batzu; eta ari esker daukagu hura irakurtzeko aldia.

Gudu denboran, zerbeit egitea gatik lan bitzi auxe egin nuen eta bialtzen diot, baldin *Herrian* argitaratu nahi badu. Baiki, ni euskaldundu naizela, orko euskara-idazleak irakurtuz eta orgatik bialtzen diot lan unekin, nahi dueño egiteko.

Orren O.O. eta, ez ni aztu.

Jainkoa baitan eta eskuan musu emanaz, agur beroenak.

Dr Irigarai
17-111-1947

14-X-1948

Pierre Laffitte jaun apezari
Baionan

Aspaldiko ene adiskide agurgarria: orai duela zenbeit egun biali nihon idaztiño bat *Guía médica del asistente a moribundos* eta berezirik eskutitz bat erraten niola; nola idaztiño haren berri labur-labur eman dutala eta hunekin balio bialtzen diotala, baldin gai othe den *Herrian* argitaltzeko edo bertze gisaz.

Ez dakit, noizpait asiko othe garen elkarren berri jakiten, kontrabandaz ibili gabe.

Eta, burruhilako, eta ez Urrillako *Herriar*ik ez didate eskuratu, orgatik nago Eusko Ikaskuntzako berririk jakin gabe. Bizkitartean eta beti, Jainkoa baitan orren meneko eta zerbitzari.

Dr Irigarai

Uts larri zenbeit aurkituko du lan huntan, othoi, ekendu edo zuzendu.

Agur handi bat.

Nere euskara lan hunen ondarrean erraten dut: *Descripción previa del agonizante*, Dr Letamendi jaunaren idazti batetik artua, eta emen ederki dago erdaraz, ez nahiz menthuratu itzulikatzerara eta hala nahi nuen utzi, baño, erdarazko idaztiñoa eskuratu baldin badu, han dago.

Iruñean, 1949ko Buruilaren 14garrean

Oyamburu jaunari,

Nahiz ez dugun elkar ezagutzen, idazten dautzut Ierro oiek, gure adichkide on, Patxi Arraras-en (85) bitartez.

Yakinaraziz nola gure aita maite-maitea Fermín Irigaray jauna, sendagille eta eskual-idazle chaharra, il zen ganden Larunbat Buruilaren 3garrean.

Nola ezagun eta adichkide ainhitz bazaukan mendiz bertzalde, aspaldidunik, bereziki idazten *Eskualdunan* lehenik eta *Herrian* ondotik, igortzen zuela astero Nafarroako berriak; diot adixkide on-onak bazuela «Larreko» jaunak (unela zuen izen ordea) Frantziako Eskualerrian.

Orgatik, chede orrekin izkiriartzen dautzut Oyamburu jauna idazti au, yakinarazteko *Herriaren* zuzendari eta gainerako adichkideeri (eken artean aurkitzen da Mgr. St Pierre jaun Apezpikua (86) eta adichkide chaharra) berri hits au.

Barkatu ene ausartia, eta badakizu non aurkituko duzun beartsu balin ba-zaude adixkide bat.

Luis M^e Irigaray

Aztu zait erraitea nere anai Angel-eri Donostian bizi dena aditua nagola zuetaz solas egitea.

(85) Francisco Arrarats Soto?

(86) Jean Saint-Pierre *Anxubero* (1884-1951).

...

Aipatu tugu euskalzaleen arteko aserreak eta ara nola orai bi aste bihotz minekin irakurri dugun P. Lafitte gure buruzagiari, anónimo batek izkiribatzen dion itsuskeria. Egilleak bere burua itsusten du eta ez du eskualdungeoa laguntzen. Aitzitik, erdalduna so dago bazterretik, irrinioa ezpainetan.

Herriaren buruzagiak ez du ori merezi, eskuara eta Eskualerriaren alde ainitz lan eginik baidago. *Eskualdunaren* demborako irakurlea naiz; ordukoen gozotasuna eta oraikoen euskalzaletasuna (marratik iragan gabe!) zertako ez adostu?

Ezta aski soñeko ederra, behar da ere barren bizia eta jakingarria. Eta ñork ez du dudatuko Dr Jaureguiberry-k (87) betetzen duela bere saila franseseko shokoan bein ere ez bezain aioski, beren artikululu zorrotz eta atsegin-garriekin.

Mr St Pierre edo alako lehenagoko baten eskuara yori eta garbia, berriz, gustora irakurtuko zela noiz peinka bederen? Bai naski, ala balitz obe.

Lehenagokoa da Zerbitzari ere, eta unen Eskualzaleen Biltzarreko berriak nork ez du yastatzen eta bi aldiz irakurtzen? Aditua dugu bada lagungo orretan nahi luketela eskuara-sariak yoritu; bigarren sekzione berri bat finkatu, sartzekotan iri larrieneko aurrak bakarrik, eta mintzatzeaz bakarrik etsaminatu. Ala, Maule, D. Garazi, Cambo, D. Lohitzune, Endaya irietan inharrosaldi bat egin nahi lukete.

Ezta gaizki, baño lehenik platera pasatu beharko.

Ganisstebe

(87) Ikus 4.oharra.